Un certain nombre d'éléments justifie que l'enveloppe prévisionnelle de l'aide globale apportée aux opérateurs linguistiques soit augmentée en 2005, premier exercice de l'Office Public :

- les besoins importants repérés depuis 2001 dans le domaine des activités périscolaires auxquels l'opération 1.3. de la Convention Spécifique n'a que partiellement répondu (le partenariat avec la Communauté Autonome d'Euskadi a été principalement mobilisé sur cette opération)  
→ augmentation prévisible de 10 000 € sur cette ligne par rapport à 2004
- les besoins croissants en matière d'expertise linguistique que génère le développement de la langue basque dans des sphères faiblement investies jusqu'ici (l'administration des collectivités locales, le sport, la santé...) qui pourraient donner lieu à des activités ou des productions demandées par l'Office Public et réalisées par l'Académie basque Euskaltzaindia, le Centre de recherche Iker, AEK ou autres opérateurs  
→ augmentation prévisible de 16 000 € sur la ligne 1.2. et de 10 000 € sur la ligne 1.4. par rapport à 2004

- *Orain arte Hitzarmen Berezian aztertua izan ez den euskarazko edizioaren arloa; Obragintza Publikoko partaideek 2002 urtean erabaki zuten gai hori aztertzea, Hitzarmen Bereziko ebaluaketa fasea kari. Azterketa, ebaluaketa eta interbentzio irizpideen definizio lan guzia egin behar da.  
→ 26 000 €-ko emendatze bat 2004 urteari konparatuz*

*Bestalde, 2004ko udaberrian Obragintza Publikoak hasitako « euskara eta NTIC-teknologi berriak» egitasmoaren inguruan, 117 000 €-ko dirutza pentsatua da. Zama hau, Obragintza Publikoko partaideek urtero 2004tik 2006rat mobilizatzeko asmoa zutenari doakio (dirutza hau, EEP-ak eman dezakeen gehiena da arlo honetan).*

***Ondorioz, 838 000 €-ko aitzinkondu bat erabakia da euskalgintzako eragileen laguntzeko. Hau, 2004ko 776 000 € oinarriarekiko kalkulaturia izan da (horietarik %92 Hitzarmen Berezian engeiatuak zirenak), 62 000 €-ko aurreikusitako emendatzearekin (erran nahi baita %8a).***

## **2. SAILA - EUSKARAREN ETA EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN GARATZEA ETA EGITURATZEA**

*Hezkuntza Nazionala / Kontseilu Orokor hitzarmenaren martxan jartzeari lotutako jardueren parte garrantzitsu bat, EEP-ko lan talde permanentearen esku izanen da, Administrazio Kontseiluak finkatutako norabideen errespetuan.*

*Aitzinetik egin behar den irakaskuntzako egoeraren azterketaren kasua da adibidez, baina gisa honetako beste inizatibena ere : hautetsi edo burasoekiko sensibilizazio bilkurak, herriekiko hitzartzeak izen emate jardunbideetaz eta egoitzen arloan, beste eragileekin partaidetzan inkesta batzuen egitea, informazio tresnen sorkuntza, eta, bistan dena, urteko egitarauen eta irakaskuntzaren kartaren inguruko lan guzia.*

*EEP-ko funtzionamenduko aitzinkondua (4.saila) kontutan hartuz, arabera jarduerak, beste gastu mota batzuk eraginen ditu (komunikazio lana, inkesta egituren lana, jardunaldien antolaketa...). Hitzarmen Berezia kari, Akademiako Ikuskaritzak kudeatutako esperientzia oinarrituz, erran genezake gastu horiek 93000€koak izanen litzatekeela.*

- la problématique de l'édition en langue basque non traitée jusqu'ici dans le cadre de la Convention Spécifique et que les partenaires de la MOP en 2002 avaient décidé d'instruire à l'occasion de l'évaluation de la Convention Spécifique à mi parcours. Tout le travail d'analyse, d'expertise et de définition éventuelle de critères d'intervention reste à mener  
→ augmentation prévisionnelle de 26 000 € sur cette ligne par rapport à 2004

Par ailleurs, dans l'attente de l'instruction technique à réaliser pour les dossiers recueillis dans le cadre de l'appel à projets « NTIC et langue basque » lancé par la MOP au printemps 2004, il est logique de fixer une enveloppe prévisionnelle à hauteur de 117 000 € correspondant à la somme que les partenaires de la MOP se proposaient de mobiliser chaque année de 2004 à 2006 (montant maximal que l'Office Public pourrait verser sur cette opération).

**Il est donc décidé de fixer à 838 000 € l'enveloppe prévisionnelle pour l'aide aux opérateurs, calculée sur une base 2004 estimée à 776 000 € (dont 92% contractualisé dans le cadre de la CSPB) et d'une augmentation prévisible de 62 000 € (soit 8%).**

## **DOMAINE 2. - DEVELOPPEMENT ET STRUCTURATION DE L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE ET EN BASQUE**

Une partie importante des activités liées à la mise en œuvre de la convention CG / MEN sera techniquement assurée par l'équipe permanente de l'Office Public dans le cadre des orientations fixées par le Conseil d'Administration.

C'est par exemple le cas du diagnostic préalable à réaliser, mais aussi d'autres initiatives du type : réunions de sensibilisation auprès des élus ou des parents d'élèves, concertation avec les communes sur les procédures d'inscription et les aménagements immobiliers, réalisation d'enquêtes en partenariat avec d'autres organismes, création d'outils d'information et, bien entendu, tout le travail sur la programmation pluriannuelle et la carte des enseignements.

Les activités correspondantes financées par le budget de fonctionnement de l'Office Public (Domaine 4), génèreront un certain nombre de dépenses complémentaires (recours à des prestataires en communication, à des organismes de sondage, édition de supports d'information, organisation de séminaires ou de colloques, annonces ou insertions payantes...) que l'on peut estimer à 93 000 € sur la base des expériences

*Aurrekontua horrela agertzen da :*

- *sozial eskaeraren neurtzeko tresnak : 30 000 €*
- *familien sentsibilizazioa : 53 000 €*
- *hitzarmenari dagozkion beste lan batzuk : 10 000 €*

*Bestalde, 2. saileko aktibitateen gauzatzeak elkarte edo eragile publikoei zuzendutako diren dirulaguntza batzuk suposatzen ditu :*

- *Hitzarmen Bereziaren arloan mobilizatutako diru engaiamenduen segipenean :*
  - *ikas materiala ekoizten duten partaideei laguntza : 141 000 €*
  - *programa editorialetan ekoizpenerako laguntza : 125 000 €*
- *lurraldeko kolektibitateek (Akitaniako eskualdeak eta departamenduak) burasotzeko emandako laguntzen segipenean : 118 000 €*

***Ondorioz, 477 000 € erabakiak dira euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapen eta egituratzeko gastuentzat; hori, 2004ko 449 000 €-ak oinarritzat hartuz (horietarik %71-a Hitzarmen Bereziaren engaiatuak) eta 28 000 €-ko emendatze bat (erran nahi baita %6-ekoa).***

### ***3. - SAILA EUSKARAREN PRESENTZIA SUSTATZEA BIZI SOZIALEAN***

*Aitzineko aktibitate batzuen bezala, euskararen sustatzea bizi sozialean lan arlo berri bat da podere publikoentzat.*

*Administrazio Kontseiluak baieztatuko duen metodologia bat oinarritzat hartuz, ariketa, urtean zehar, publiko garrantzitsu batekin harremanetan dauden hainbat eragile publiko edo pribatuekin (entrepresa handiak, zerbitzu publikoak, komertzioak, kultura edo kirol saileko ekimenen antolatzaileak...) harremanetan jartzea litzateke.*

*Haiekin, euskararen erabileraren sustatzearen ahalbide ezberdinak aztertuko dira, publikoarekiko idatziko edo ahozko harremanetan : soinu deiak, seinaleketik, harrera, langileen euskararen ikastea... Aitzinetik, EEP-rekin eztabaidatutako gauzatze programa batek, bi partaideen arteko hitzarmena osatzen ahalko du.*

*Baina, EEP-ak instituzionalki eraman jarduerak eta lan talde permanentek burututako*

déjà menées dans le cadre de l'opération de la Convention Spécifique pilotée par l'Inspection d'Académie.

Cette enveloppe prévisionnelle est ventilée de la manière suivante dans le document budgétaire ci-joint :

- 30 000 € pour les outils de mesure de la demande sociale
- 53 000 € pour la sensibilisation des familles
- 10 000 € pour d'autres prestations liées à la convention

Par ailleurs, la mise en œuvre des activités de ce domaine 2 renvoient à un certain nombre d'aides versées à des opérateurs publics ou associatifs :

- dans la continuité des fonds mobilisés dans le cadre de la Convention Spécifique :
  - aides aux opérateurs de production de matériel pédagogique : 141 000 €
  - aides à la réalisation de programmes éditoriaux : 125 000 €
- dans la continuité des aides accordées par les collectivités territoriales (Région et Département) aux associations de parents d'élèves : 118 000 €

**Il est donc décidé de fixer à 477 000 € l'enveloppe prévisionnelle pour les dépenses liées au développement et à la structuration de l'enseignement du basque et en basque, calculées sur une base 2004 estimée à 449 000 € (dont 71% contractualisés dans le cadre de la Convention Spécifique Pays Basque) et d'une augmentation prévisible de 28 000 € (soit 6%).**

### **DOMAINE 3. - PROMOTION DE LA LANGUE BASQUE DANS LA VIE SOCIALE**

A l'instar d'une partie des activités du domaine précédent, la promotion de l'usage du basque dans la vie sociale constitue un domaine d'intervention nouveau pour les pouvoirs publics.

L'exercice consistera à solliciter au cours de l'année, sur la base d'une liste et d'une méthodologie validée par le Conseil d'Administration, un certain nombre d'organismes publics ou privés, étant en contact avec un public important : grandes entreprises, services publics, centres commerciaux, organisateurs de manifestations culturelles ou sportives...

Il conviendra d'apprécier avec eux la possibilité de promouvoir l'utilisation du basque dans la communication écrite ou orale avec le public : publications, annonces sonores, signalétique, accueil, apprentissage du basque par le

*harremanek ondorio zehatz eta emankorrek izateko, partaideak hautatutako ekimena diru mailan bultzatzeko prest izanen da EEP: itzulpengintzarako laguntzak, ediziorako, formakuntzendako...*

*Posible diren interbentzio ardatzak aitzinetik finkatu ordez, egokiago litzateke, desmarxa berria dela kontutan hartuz, Administrazio Kontseiluak baieztatutako zerrenda bateko eragileekin harremanetan jartzea eta araberako interbentzio arauen sortzea kasu bakoitzari moldatuz.*

*Euskalgintzako eragileei emandako laguntzen gisara, eskaintako diru laguntzak, proiektuaren araberakoak, Administrazio Kontseiluak onartuko ditu eta EEP-ko lan talde permanenteak segituko.*

*Bide berean, Euskal Kultur Erakundearekin (EKE) batera, inizatibak hartzen ahalko dira hizkuntza edo/ta euskal kulturaren aldeko ekimenen inguruan. Izan daitezke leku publikoetan egindako erakusketak, animazio kulturalak artista batzuen inguruan... eta beste jarduera frango, EKE-ek jadanik bizi izan dituenak azken urteetan. Kasu honetan hitzarmena hirukoitza izango litzateke: EKE, egitarauaren parte kulturalarentzat, EEP, hizkuntzaren partearentzat eta obragile publiko edo pribatua.*

**98 000 €-ko diru kopuru bat bozkaturia da 2005eko egitarau berri horren martxan jartzeko.**

#### **4. SAILA - FUNTZIONAMENDU KARGUAK**

*Sail honetan, aitzineko hiru sailen plantan jartzea ahalbidetzen duten funtzionamendu kargu guztiak bilduak dira. Bertan, lan talde permanenteak suposatzen dituen gastuak daude (hilabete sariak, formakuntzak, bide gastuak, eta abar... 4,5 lan postuentzat), EEP-ko komunikabide gastuak (web gune, informazio aldizkari ...), material gastuak...*

*Hor aipatutako hiru lan sailletaz gain, aitzinkonda horretan sartuko dira ere, « funtzio iraunkorrek »-ei lotutako gastuak: hizkuntzaren azterketa (harpidetzak, ikerketak...), kanpoko instituzio publikoekiko harremanak (ordezkarien harrera, bisiten antolaketa...), aholku batzordearen funtzionamendu gastuak txostenen idazketa, itzulpen gastuak,...*

personnel... Un programme de réalisations préalablement discuté avec l'Office Public pourra faire l'objet d'une convention entre les deux parties.

Au-delà de la dimension institutionnelle dans laquelle s'inscrivent les initiatives de l'Office Public et de l'ingénierie assurée par l'équipe permanente dans la phase de contact, les résultats atteints seront d'autant plus performants que l'Office Public sera en mesure d'accompagner financièrement les réalisations choisies par l'opérateur : aide au financement des prestations de traduction, d'édition, de formation.....

Plutôt que de fixer a priori les axes d'intervention possibles, il sera plus opportun compte tenu du caractère expérimental de la démarche, d'établir un certain nombre de contacts avec des organismes dont la liste sera validée par le Conseil d'Administration et de construire progressivement des règles d'intervention adaptées aux problèmes rencontrés et à chacune des situations.

Comme dans le cas des aides versées aux opérateurs de l'action linguistique, les subventions octroyées seront validées par le Conseil d'Administration sur la base des réalisations projetées par le destinataire, et suivies par l'équipe permanente de l'Office Public.

Dans le même esprit, des initiatives pourront être prises en concertation avec l'Institut Culturel Basque (ICB), dans le cadre de démarches de promotion de la langue et de la culture basques : expositions dans les lieux publics, animations culturelles autour d'artistes... et autres activités que l'ICB a déjà largement expérimentées depuis plusieurs années. La convention pourrait être alors tripartite : l'ICB pour le volet culturel du programme, l'OPLB pour le volet linguistique et le maître d'ouvrage public ou privé.

**Une enveloppe prévisionnelle de 98 000 € est identifiée pour mettre en place en 2005 un programme expérimental en ce domaine.**

#### **DOMAINE 4. - LES CHARGES DE FONCTIONNEMENT**

Dans ce chapitre sont regroupées toutes les charges de fonctionnement qui contribuent de manière transversale à la mise en œuvre des trois domaines précédents. On y trouve les coûts liés à l'équipe permanente (rémunération, formation, déplacements... pour 4,5 postes de travail), les dépenses de communication de l'Office Public (site internet, magazine...), les achats de fournitures et de matériels...

Au-delà des trois domaines d'activité précédemment décrits, ce budget hébergera les dépenses liées aux « fonctions permanentes »

***Funtzionamendu kargu horiei aurre egiteko 320 000 € kontatzen dira (egituraren aitzinkondu osoaren % 18a hain zuzen ere)***

### ***Azken hitza***

*Lau sailetan banatua den aktibitate programa eta aitzinkonduen deskribapena oinarritzat hartu behar diren erreferentziazko dokumentuak dira. (cf. "Erakunde Publikoaren jarduteko sailak" dokumentua)*

*Dokumentu honetatik, 2006/01/26 Administrazio Kontseiluan aurkeztutako "Etekinen eta gastuen aurreikusitako egoera" dokumentua prestatua izan da, IPE egiturei aplikatzen zaien finantza eta kontable arauetan (M 9.1) oinarrituz.*

*"Etekinen eta gastuen aurreikusitako egoera" dokumentuaren aurkezpenaren arauen arabera, eragileei emanen zaizkien dirulaguntza guztiak, 65 kondu batean "dirulaguntzak eta laguntza zuzenak" bildu behar dira, hots, 1 320 000 €-ko diru emaitza bat, aitzinkondu osoaren %76.*

*Dirulaguntza bakoitza Administrazio Kontseiluko erabaki baten bidez onartuko da.*

citées dans l'exposé des motifs : observatoire de la langue (abonnements, études éventuelles...), relations avec des institutions publiques extérieures (accueil de délégations, visites à organiser...), fonctionnement du comité consultatif (éditions de rapport, traduction simultanée, animation des groupes, expertise mobilisée...).

**Une enveloppe prévisionnelle de 320 000 € est identifiée pour faire face à ces charges de fonctionnement (18% du budget total de la structure).**

### **Conclusion**

Ce descriptif des activités et des prévisions budgétaires correspondantes regroupées en 4 domaines constitue le document cadre de référence (cf. "Domaines d'intervention de l'Office Public") à partir duquel s'établit l'Etat Prévisionnel des Recettes et des Dépenses (EPRD), élaboré conformément à la réglementation financière et comptable (M 9.1) applicable aux GIP et soumis à l'approbation du Conseil d'Administration du 26/01/2005 (cf. EPRD).

La présentation réglementaire de l'EPRD conduit à regrouper au sein d'un compte 65 "subventions et aides directes" l'ensemble des aides prévisionnelles à accorder aux opérateurs dans le cadre des trois domaines d'activités retenus, soit un total de 1 320 000 €, correspondant à 76% du budget de l'OPLB. Chacune de ces aides fera l'objet d'une délibération du Conseil d'Administration.



## **EUSKARAZKO ETA EUSKARAREN IRAKASKUNTZA – EGOERAREN AZTERKETA** **L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE ET EN BASQUE – DIAGNOSTIC DE L'EXISTANT**

*1. 2004ko azaroaren 26an, Hezkuntza Nazionaleko Ministeritza eta Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra engaiatzen ziren, hitzarmen baten bitartez, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzeko eta egituratzeko hitzartze iraunkor bat helburu duen egitura amankomun batean. Hitzartze horretan sartzen dira partaideek abiatu beharreko politikak, izan dadin Estatuak bere gain dituen gaitasun alorretan ala tokiko erakundeek dituztenetan, eta baita ere bien gain daudenetan. Hitzartze hori doakie irakaskuntza eskaintzaren egokitzeari, eskaintza horrekin beharrezkoak diren laguntza-jarraikitze neurriei eta pedagogia mailako animatzeei. Desmartxa hori sartzen da ikasturteen koherentzia, osotasuna eta jarraipena printzipioetan, eta kontutan hartzen du euskararen eta euskarazko irakaskuntza honek dauzkan hiru sareak (irakaskuntza publikoa, irakaskuntza pribatu profesionala elkarte kontratupean, elkarte irakaskuntza pribatua elkarte kontratupean).*

*Izenpetzaileek Euskararen Erakunde Publikoari eman diote hitzartze horren obratzeko kargua.*

*Bi izenpetzaileek egitura obralari laguntzaile izendatuz geroz, Erakunde Publikoak oraindik goiti bere gain du :*

- 1. dagoen irakaskuntza eskaintzari buruzko informazioaren hedapenaren laguntzea ;*
- 2. euskarari eta irakaskuntza elebidunari buruzko sentsibilisazio eta sustatze kanpainen antolatzea ;*
- 3. euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaeraren aztertze inkestean eta iritzi-ikerketen antolatzea ;*
- 4. ikaslearen ikasturte ezberdinetan zehar koherentzia, osotasuna eta jarraipena segurtatuko duen irakaskuntza eskaintzari buruzko epe luzeko programazio baten sortzea eta proposatzea ;*
- 5. oinarri horietatik abiatuz, epe luzeko programazioa gorpuzten duen irakaskuntzen karta baten proposatzea : irakaskuntza gune kopuruaren finkatzea eta gune horien kokatzearen hautatzea ;*
- 6. epe luzeko programazioan finkatu gune idekitzeen prestatzea, lan hitzartu bat eramanez beharrezko altzari edo lur-erakin inbertsioetan inplikatuak diren tokiko erakundeekin, sentsibilisazio lan bat eginez familietan eta izen-emaite jardunbide egokiak zutik ezarriz ;*
- 7. hitzartze esparru baten sortzea euskararen alorrean ari diren elkarteekin,*

Le 26 novembre 2004, le Ministère de l'Education Nationale et le Conseil Général des PA se sont engagés par convention dans un dispositif commun de concertation permanente visant à développer et structurer l'offre d'enseignement de et en langue basque. Cette concertation concerne les politiques à engager par les partenaires dans les domaines de compétence de l'Etat, dans ceux des collectivités locales et dans les domaines de compétence partagés. Elle porte sur l'adaptation de cette offre et sur les mesures d'accompagnement et d'animation pédagogiques nécessaires. Cette démarche s'inscrit dans les principes de cohérence, de complétude et de continuité des cursus et porte sur l'enseignement du basque et en basque dans les 3 filières existantes (enseignement public, enseignement privé confessionnel sous contrat d'association, enseignement privé associatif sous contrat d'association).

Les signataires ont confié à l'Office Public de la Langue Basque le soin de mettre en œuvre cette concertation.

Désignée structure opérationnelle d'appui par les deux signataires, l'Office Public est désormais chargé :

1. de favoriser la diffusion de l'information sur l'offre d'enseignement existante ;
2. d'organiser des campagnes de sensibilisation et de promotion relatives à la langue basque ainsi que sur l'enseignement bilingue ;
3. d'organiser des enquêtes ou des sondages relatifs à l'analyse de la demande d'enseignement de et en langue basque ;
4. de concevoir et de proposer la mise en place d'une programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement assurant la cohérence, la complétude et la continuité des cursus tout au long de la scolarité ;
5. de proposer, sur ces bases, une carte des enseignements de et en langue basque déclinant la programmation pluriannuelle : détermination du nombre de sites d'enseignement et choix de leur implantation ;
6. de préparer l'ouverture des sites prévus dans la programmation pluriannuelle par un travail de concertation avec les collectivités locales concernées par les investissements immobiliers et mobiliers à réaliser ainsi que par des actions de sensibilisation auprès des familles et la mise en œuvre de procédures d'inscription adaptées ;

*bereziki irakaskuntza elebiduneko hiru sareetako buraso elkarteekin.*

*Bestalde, Erakunde Publikoak bere gain du irakaskuntzari doakion egitura berezi horren kari proposatu norabideen eta hizkuntza politikako beste gaien arteko koherentziaren zaintzea.*

*Bere misioa molde eraginkor eta objektibo batez eramaiteko gisan, Euskararen Erakunde Publikoak erabaki du egoeraren azterketa zehatz bat aintzinetik egitea bi helbururekin :*

- *egitura berri horren lanen abiatzeko mementoan, egoeraren azterketa zehatz baten ukaiteko ;*
- *hitzarmenaren izenpetzaileek eman misioaren obratzeko baitezpadakoa den tresnaren ukaitea.*

*Alabaina, misio horren erdi-erdian kokatzen da irakaskuntza eskaintzari buruzko epe luzeko programazio baten zutik ezartzea. Hori da Erakundeak mahainaren gainean duen lehenbiziko lan alorra, epe ahal bezain laburrean abiatu behar duena. Izan ere, dagoen eskaintzaren ezagutzari esker, epe luzeko programazio bat eraikiko du, ondoko urteentzat hitzarmenaren beste obra-ardatzak baldintzatuko dituena :*

- *sentsibilisazio kanpainak hiru mailatan (publiko zabal bati buruzko kanpaina orokorrak ; jadanik dauden eta beteak ez diren guneei buruzko informazio eta promozio kanpaina berezituak ; gune berrien idekitzei buruzko komunikazio kanpaina berezituak), eramanak izanen direnak izen-emaite jardunbide egoki batzuen plantatzearekin batean ;*
- *beharrezko altzari edo lur-eraikin inbertsioei buruzko lan hitzartua tokiko erakundeekin.*

*Horrekin batean, irakasleen formakuntzari buruz eta ikas-tresnen ekoizpenari buruz partaideek abiatu beharko dituzten politikei buruzko hitzartzeak antolatuko ditu.*

*Horrengatik egoeraren azterketak bost atal ikertuko ditu :*

- *2004/2005ko ikasturtearen irakaskuntza eskaintzaren azterketa kuantitatiboa ;*
- *euskararen eta euskarazko irakaskuntzari buruzko lege eta araudi ingurumena ;*
- *2004/2005an euskararen eta euskarazko irakaskuntzarentzat izendatu irakasleak ;*
- *irakaskuntzako bi hizkuntzen arteko oren banatzeak : egoeraren deskribatzea sistema pedagogiko ezberdinen arabera ;*
- *euskarazko ikas-materiala.*

7. *d'établir un cadre de concertation avec les associations oeuvrant dans le domaine de la langue basque, tout particulièrement les associations de parents d'élèves des trois filières d'enseignement bilingue.*

L'Office Public est par ailleurs chargé de veiller à la cohérence entre les orientations préconisées dans le cadre de ce dispositif propre à l'enseignement et les autres thèmes de la politique linguistique.

Afin de remplir efficacement et objectivement sa mission, l'Office Public de la Langue Basque a décidé de réaliser au préalable un diagnostic précis de l'existant répondant à un double objectif :

- *disposer d'un état des lieux détaillé au démarrage des activités de ce nouveau dispositif ;*
- *disposer de l'outil indispensable à la mise en œuvre de la mission que lui confient les signataires de la convention.*

Au cœur de cette mission se positionne en effet la mise en place d'une programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement. C'est là le premier chantier auquel il convient de s'atteler dans les meilleurs délais. L'identification de l'offre existante permettra en effet de construire une proposition de programmation pluriannuelle conditionnant pour les années suivantes la mise en œuvre des autres axes opérationnels de la convention :

- *campagnes de sensibilisation à trois niveaux (campagnes générales en direction du grand public ; campagnes ciblées d'information et de promotion relativement aux sites déjà existants et non saturés ; campagnes ciblées de communication autour des ouvertures de sites nouveaux) s'accompagnant de la mise en place de procédures d'inscription adaptées ;*
- *concertation avec les collectivités locales sur les investissements immobiliers et mobiliers à réaliser.*

En parallèle seront organisées les concertations nécessaires sur les politiques à engager par les partenaires en matière de formation des maîtres et de production d'outils pédagogiques.

C'est pourquoi le diagnostic comprendra 5 parties :

- *L'analyse quantitative de l'offre d'enseignement pour l'année scolaire 2004/2005*
- *Le cadre législatif et réglementaire de l'enseignement du basque et en basque*
- *Les enseignants affectés à l'enseignement du basque et en basque en 2004/2005*
- *Les répartitions horaires entre les deux langues d'enseignement : descriptif des pratiques en cours selon les systèmes pédagogiques*

*Erakunde Publikoak atal horiek ekoiztuko ditu molde independentean beharren eta datuen erdiesteen erritmoen arabera, jakinez irakaskuntza eskaintzaren ikerketak duela, dudarik gabe, lehentasuna azterketa atal guzien artean.*

- Le matériel pédagogique en langue basque  
Chacune de ces parties sera produite de manière indépendante en fonction des besoins et des rythmes de mobilisation des données, l'analyse quantitative de l'offre d'enseignement constituant sans aucun doute le point d'analyse prioritaire.

**KULTURA MAILAKO ERAKUNDE PUBLIKOA :  
HITZARMEN SORTZAILEAREN EGITASMOA  
"HIZKUNTZA POLITIKAREN ERAKUNDE PUBLIKOA"**

**Elkarrekin hitzarturik :**

- Estatua, Pirinio Atlantikoetako Prefetak ordezkatzeko duena eta Bordeleko Akademiako Erretoreak.
- Akitaniako Eskualdea, bere Lehendakariak ordezkatzeko duena, Eskualdeko Kontseiluak, 2003ko abenduaren 15ean, hartu zuen erabakiaren arabera,
- Pirinio Atlantikoetako Departamendua, bere Lehendakariak ordezkatzeko duena, Kontseilu Nagusiak, 2003ko abenduaren 8an, hartu zuen erabakiaren arabera,
- Euskal kultura sostengatzeko duen Herrienarteko Sindikata, bere Lehendakariak ordezkatzeko duena, Sindikataren Kontseiluak, 2003ko abenduaren 13an, hartu zuen erabakiaren arabera,
- Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua bere Lehendakariak ordezkatzeko duena, Administrazio Kontseiluak, 2003ko abenduaren 18an, hartu zuen erabakiaren arabera,

interes publikoa duen erakunde bat antolatu da, hemendik hara "Erakundea" deituko dena; idazki agintzaileak dira 1987ko uztailaren 23ko 87-571. legea eta bereziki 22. atala, 2000ko ekainaren 15eko 2000-549. manuak aldatu zuena, bai eta 1991eko azaroaren 28ko 91-1215. deretuak, bai eta hitzarmen hau.

**LEHEN IZENBURUA**

**1. ATALA : IZENA ETA EREMU GEOGRAFIKOA**

Bilgunearen izena da "EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA".

Erakundearen lan eremuak estaltzen duen lurralde geografikoa, 1997ko urtarrilaren 29an prefetaren aginduz finkatu zen "Euskal Herri" lurraldearen muga berdina dauka, barne direlarik kantonamendu hauetako udalerriak : Baiona-ekialdea, Baiona-iparraldea, Baiona-mendebala, Biarritz-ekialdea, Biarritz-mendebala, Angelu-iparraldea, Angelu-hegoaldea, Bidaxune, Ezpeleta, Hazparne, Iholdi, Bastida, Baigorri, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Donapaleu, Uztaritze, Hendaia, Hiriburua, Maule-Lextarre, Atharratze.

**2. ATALA : EGINKIZUNAK**

Erakundearen eginkizunak hauk dira :

- Euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea.
- Behar diren finantza baliabideak bermatzea, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo obralari batzuekin hitzartu dituenak gauzatzeko.

**3. ATALA : EGOITZA**

Erakundearen egoitza Baionan finkatua da, 4, allées des Platanes. Beharrez beste toki batera alda daiteke administrazio kontseiluaren erabakiz.

**4. ATALA : IRAUPENA**

Erakundea sei urterentzat antolatua da.

Epearen luzatzeko, bazkide guztien adostasuna beharrezkoa da.

Epea hasten da, Kazeta Ofizialak zabalduko duelarik, hitzarmen sortzaile hau onartzen duen ministeritzarteko erabakia.

## **5. ATALA : SARTZEA, ATERATZEA, KANPORAKETA**

### **SARTZEA**

Erakundearen diraueno, bazkide berriak onar ditzazke, Administrazio kontseilu osoaren erabakiz, aitzinetik sartzeko eskaera idatziz adieraziko delarik.

Bazkide berriaren sartzekak eskatuko du gai hauk zehazki definituak izan ditezen :

- ekarpenaren neurketa,
- Erakundeko bazkideek dituzten araudi eskubideen banaketa berria,
- Administrazio kontseiluaren bazkidetza berria.

Sartuko den bazkide berriak Erakundearen hitzarmen sortzailea izenpetuko du. Administrazio kontseiluak hitzarmen honen aldaketa-idazki bat onetsiko du, bazkide berriaren eskubideak eta eginbideak finkatuko dituena. Ministeritzarteko erabaki batek aldaketa-idazkia onetsiko du, hitzarmen sortzailearen molde berdinean.

### **ATERATZEA**

Hitzarmena diraueno, edozein bazkide Erakundetik atera daiteke bidezko zergati batengatik, urteko aurrekontua bururatzearekin ; baldintza da bere xedea adieraz dezan hiru hilabete urtea bururatu aitzin eta ateratzeko finantza baldintzak onartuak izan ditezen Administrazio kontseiluarengatik.

Hitzarmen honen aldaketa-idazki batek ateratzeko baldintzak finkatuko ditu, bereziki finantzaren aldetik, ekarpenaren arabera eta kontuan hartuz Erakundeak bere gain hartuak dituen gastuak.

Administrazio kontseiluaren adostasuna erdietsi ondoren, ministeritzarteko erabaki batek aldaketa-idazkia onetsiko du, hitzarmen sortzailearen molde berdinean.

### **KANPORAKETA**

Bere eginbideak betetzen ez dituen bazkide baten kanporaketa Administrazio kontseiluak erabaki dezake, baina aho batez, aipatu bazkidearen boza kontuan hartu gabe. Administrazio kontseiluak aitzinetik entzunen du kanporatua izateko arriskua duen edozein bazkide.

Ateratzeko finantza baldintzak eta besteak balio dute kanporatu bazkidearentzat. Bere gain ditu hitzartuak zituen eginbeharrak.

Erabakia den kanporaketak eskatzen duen aldaketa-idazkiak, administrazio kontseiluaren onespena erdietsiko du, eta gero ministeritzarteko erabaki batena, hitzarmen sortzailearen molde berdinean.

## **BIGARREN IZENBURUA**

### **6. ATALA : KAPITALA**

Erakundea kapitalik gabe antolatua da.

### **7. ATALA : ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK**

Araudi eskubideak hauk dira :

Estatuak	% 30 zati.
Akitaniako eskualdeak	% 30 zati.
Pirinio Atlantikoetako departamenduak	% 30 zati.
Euskal kultura sostengatzen duen Herrienarteko Sindikatak	% 9 zati.
Hautetsien Kontseiluak	% zati bat.
Administrazio kontseiluan bazkide bakoitzak hartze duen bozen kopurua araudi eskubideen arabera da, baina bazkide bakoitzak gutienez boz bakar bat hartze du.	

Beren arteko harremanetan, bazkideek Erakundearen eginbeharrak beteko dituzte beren araudi eskubideen arabera berdinean, salbu langileen prestamuari buruz. Kanpokoei buruz, Erakundearen bazkideak ez dira elkarkide. Zorren erantzule dira, bakoitza bere araudi eskubideen heinean.

Bazkide baten sartzea, kanporaketa edo ateratzea gertatzen bada, Administrazio kontseiluak araudi eskubideak berriz definituko ditu ; ministeritzarteko erabaki batek aldaketa hau onetsiko du, hitzarmen sortzailearen molde berdinean.

Erakundeko bazkideen eginbeharrak hauk dira :

- Erakundeberen politika obratzeko tresnatzat erabiltzea edo obrarazteko sostengu bezala edo aitzinetik obralaritza hitzartzeko, Erakundearen ekintza eremuetan, 2. ataleko eginkizunen arabera ;
- Administrazio kontseiluetan parte hartzea, bai eta ere elkar aditzea, Erakundeak segurta ditzan 2. atalean finkatuak diren eginkizunak ;
- urte oroz ekarpenaren heina finkatzea Erakundearen ekintzetan eta karguetan, 8. atalak definitzen dituen jokamoldeen arabera.

### **8. ATALA : BAZKIDEEN EKARPENA**

Erakundeko bazkideen ekarpenak molde ezberdinetan egin ditazke egoeraren arabera:

- finantza partaidetza urteko aurrekontuan, funtzionamendu diru laguntza baten bidez ;
- langileen prestamua, 7. eta 9. atalek finkatzen dituzten baldintzetan ;
- lan tokien prestamua ;
- lan tresnen prestamua, 12. atalak finkatzen dituen baldintzetan ;
- jabetza intelektualari lotuak diren eskubideak ;
- beste edozein ekarpen Bilgunearen funtzionamendua laguntzeko, balioa elkarren artean neurtuz.

Bazkideen partaidetza moldeak, Erakundearen Administrazio kontseiluak finkatuko ditu eta erabakiko 18. atalean finkatua den adostasun osoaren arauari jarraikiz.

### **9. ATALA : LANGILEEN PRESTAMUA**

Bazkideek Erakundeari prestatuko dituzten langileek beren jatorrizko egoera atxikiko dute. Prestamua ezin da abiatu administrazio kudeatzailearen eta Erakundearen arteko hitzarmena izenpetu aitzin. Jatorrizko enplegatzaileak bere gain begiratzen ditu soldata eta gaineratiko laguntzak, estalgi soziala, asurantzak eta aitzinamenduaren ardura.

Langile horiek Erakundeko zuzendariaren aginte funtzionalaren pean ezarriak dira.

Langile horiek jatorrizko erakundera itzul daitezke baldintza hauetan :

- jua nahi duenaren eskaera ;
- Administrazio kontseiluaren erabakia ;
- jatorrizko erakundearen eskaera ;
- erakundea Erakundetik ateratzen bada edo kanporatua bada ;
- Erakundea barreiatzen, kitatzen edo beste erakunde batean sartzen bada.

### **10. ATALA : FUNTZIONARIOEN ETA AGINTE PUBLIKOETAKO ARDURADUNEN ALDAKETAK**

Estatuko edo aginte publikoetako arduradunak alda daitezke Erakundera ; orduan Erakundeak soldatak bere gain hartuko ditu, langilearen egoera errespetatuz eta Estatuko edo lurraldeko funtzio publikoaren arauari jarraikiz.

Aldaketak hauk hitzarmen berezi baten gaiak izanen dira, Erakundearen eta jatorrizko administrazioen artean.

### **11. ATALA : BERTAKO LANGILEGOA**

Bere helburuak gauzatzeko, Erakundeak bere langileak kontrata ditzazke, jadanik aipatua den 1991eko azaroaren 28ko 91-1215. dekretuaren 7. atalak finkatzen dituen baldintzetan, gehienez Erakundeak irauten dueno. Erakundearen zuzendaria kontrata daiteke atal honen arauetan.

### **12. ATALA : HORNIDUREN ETA TRESNEN JABETZA**

Bazkide batek Erakundeari prestatu dizkion hornidurak eta tresnak, bazkidearenak daude. Berriz eskuratzen ditu bilgunea barreiatzen bada. Elkartean erosten eta hobetzen diren hornidurak eta tresnak Erakundearenak dira. Erakundebarreiatzen bada, banatuko dira 23. atalak finkatzen dituen baldintzetan.

### **13. ATALA : AURREKONTUA**

